

AMARAUNA

Euskal Herriko aisialdi taldeen armiarma sarea josten

 **GIZARTEA** / oihana.llorente@gaur8.info

Fantasiatzko ipuin batean bizi ditu Eñaut Aiertzaguenak udalekuetan igarotzen dituen egunak. Ume zela egin zuen bere lehen irteera. Laguntzaile moduan errepikatu zuen nerabe zela, eta, oraindik ere, ez du udaz goatzeko plan ederragorik aurkitu. Iurretako Kimuak aisialdi taldeko hezitzailea da Aiertzaguen eta orain gutxi josten bukatu duten Amarauna aisialdi taldeen sareko kidea ere bada.

Aisialdi taldeek, euren txikitasun edo handitasunean, helburu eta behar antzekoak dituztela sinetsita hasi ziren sarea eratzen. Elkarrengandik ikasi eta elkarri laguntzeko nahiak hauspotu zituen hasieran. Aisialdi eskaintza ahalik eta txukun eta koherenteena emateak mugiarazten ditu orain. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko hamazazpi aisialdi elkartek osatzen dute egun izaera propio eta legala duen federazioa. Amaraunak Euskal Herri osoko aisialdi taldeen armiarma sarea izan nahi duenez, erronka ederra dute begi bistan Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko aisialdi taldeak ere sarean kateatzeko.

TEORIA ETA PRAKTIKA

Bizkaiko Urtxintxa eskola dago proiektuaren hastapenetan. Urteak dira Urtxintxa eskolak begirale eta zuzendari ikastaroak eskaintzen dituela. Hamarnaka dira begirale titulua eskuratu nahirik urtero Urtxintxaren atak jotzen dituzten gazteak, baina, arlo teorikoa amaitu ostean, Urtxintxak ez zuen denen praktikak bermatzeko betarik. Ikasleek, beraz, euren gisara moldatu behar zuten praktikak non edo non egiteko.

Teoriaren eta praktikaren arteko amildegia gaitzitzeko asmoz hasi zen Amarauna osatzen. Hartara, Urtxintxa eskola bere balio berak zituzten aisialdi taldeekin harremanetan jarri eta bertara ikasleak bideratzen hasi zen. Elkar truke horrek alderdi gehiago zituela aurreikusita, baina, federazio bat

Ume eta nerabeek jolasteko duten denbora baino askoz gehiago da aisialdia. Ludoteka edo udalekuetan lantzen den hezkuntzak ez du ez sonarik ezta prestigiorik ere, baina bertatik igarotzen direnak balioetan hezten dira. Amaraunak Euskal Herriko aisialdi taldeak batu eta aisialdiaren mugimenduari bultzada eman nahi dio.

sortzea erabaki zuten sareari zukua ateratzeko asmoz.

Eñaut Aiertzaguenak ondo ezagutzen ditu Amaraunaren lehen pausuak. 2010. urtean egin zituzten lehen bilerak eta bi urte geroago abiatu zuten prozesu eratzailea. Iurretarrak bi esparrutan laburbiltzen ditu Amaraunak aisialdi taldeei egiten dien eskaintza. Bereziki txikiak

edo hasiberriak diren taldeei estatutu, diru laguntza edota seguruen izapideak egiteko aholkularitza eskaintzen die sareak, bai eta edozein zalantza praktikoko argitzeko laguntza ere.

Aiertzaguenak, baina, garrantzi berezia eman nahi izan dio Amaraunak eskaintzen duen hausnarketa guneari. Aisialdi taldeen eta hezitzaileen topa-

gunea izanik, bertara eramaten dituzte balio edota hizkuntza-ren gaineko zalantzak eta hausnarketak. Batean edo bestean aurrera eramandako esperientziak partekatuz edota metodologiak trukatzuz aisialdi ereduak fintzeko ariketak egiten dituzte elkarrekin.

HAURRA ERDIGUNEAN KOKATU NAHIAN

Udalekuetan ume eta nerabeen parte hartzea nola txertatu aztertzen ari dira azken hilabeteetan. Gai horrek buruko min ugari eragin dizkio Aiertzaguenari, izan ere, haurra erdigunean ezartzea ez da egiteko erraza. Haurraren pentsatuz antolatu nahi dituzte udaleku, neguleku edota ludotekak, eta horretarako prozesu parte hartzaileak proposatzen dituzte. Arrasateko Txatxilupurdi eta Lekeitioko Kar-Kabia aisialdi taldeek praktikara eraman dituzte hainbat

Gaur-gaurkoz hamazazpi aisialdi taldek osatzen dute Amarauna sarea.
GAUR8

